

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Saltzailearen eta bezeroaren arteko harremana, ez da harreman pertsonala izango, baizik eta telefono eta guk sortutako webgune bitarteakoa. Baina beti konfiantza puntu hori egongo da bien artean eta arazoren bat edukiz gero, deitzeko aukera izango dute.

Webgunean bonoei buruzko beherapenak eskainiko ditugu, sagardotegiarekin dugun “pack” hori azalduko dugu, hau da, hoteleko bezeroak sagardotegira joateko aukera izango dute “pack” hori aukeratuz gero. Baina irteera hori ez da bakara, itsasoaren parean gaudenez, lehen esan bezala, itsas-ekintzak egiteko aukera ere eskainiko diegu, eta baita Getariara oinez ibiltzen joateko aukera eta kostaz gozatzeko aukera ere. Ez galdu hiriburuaz gozatzeko aukera ere izango dutela! Gure Donosti maitean.

Hortaz, hau denari buruz beharrezkoa den informazio guztia egongo da eskura, eta bertatik bezeroek erosi ahal izango dute. Webgunean bezeroek iruzkinak uzteko aukera izangodute eta horrela guk gure zerbitzuak hobetu ahal izango ditugu.

Webgunean gure hotelaren harpidedun egiteko aukera izango dute, eta harpidetzahonen bitartez hainbat abantaila izango dituzte. Harpide egiteko beraiei buruzko hainbat datu jarri beharko dituzte eta horrela guk, hilerro katalogo eta aldizkari bat bialduko diegu korreora. Horrela, gurekin harremanetan mantenduko dira, eta bertatik gure zerbitzu guztien berri edukiko dute.